



Unitate Didaktikoa

Ikasgai kurrikularretan aplikatzekoa

ZERUERTZ. HEZKUNTA ETA SENTSIBILIZAZIO INTERKULTURALA DBHKO IKASLEENTZAT

Euskera eta literatura (D Eredua)

01. Datu orokorrak
02. Funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarriko jakintzak.
03. Jardueraren deskribapena
04. Baliabideak eta materialak



ZERUERTZ



Datu orokorrak

TITULUA: Mundua hitzen eta literaturaren bidez deskubritzen

ETAPA: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

ZIKLOA: 3. zikloa

DENBORALIZAZIOA: Jarduera hau egiteko, ikasgelan 2 lan-saio egin behar direla uste da (1. Zereginaren sarrera eta prestaketa; 2. Bateratze-lana eta talde-hausnarketa). Horri gehitu beharko zaio ikasgelatik kanpo elkarrizketa planifikatu, egin eta transkribatzeko behar den denbora, ikasleek beraiek balioetsitako premien arabera zehaztuko dena.

Jarduera hau ikasturtean zehar egin daiteke, gai horri esleitutako beste zeregin batzuekin batera.

JARDUERAREN DESKRIBAPENA ETA EDUKIAK

- Pertsona migratzaileei elkarrizketak egitea hizkuntza-, literatura- eta kultura-aniztasunari buruz.
- Migrazio-prozesuei eta bizikidetzari buruzko hausnarketa, eleaniztasunari eta kulturartekotasunari dagokienez.
- Hizkuntzak eta literatura-proiektuak ezagutzea eta ulertzea.

HELBURUAK

- Kulturartekotasuna literaturan eta hizkuntza-aniztasunean nola islatzen den aztertzea.
- Pertsona migratu bati elkarrizketa bat egitea bere errealitatea ulertzeko.
- Pertsona migratuekiko enpatia eta aniztasun literario eta kulturala sustatzea.
- Gizartean dauden kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren balorazioa eta errespetua sustatzea.

ZERUERTZ



Funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarrizko jakintzak

FUNTZESKO KONPETENTZIAK

- Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia (HKK)
- Eleaniztasunerako Konpetentzia (EK)
- Konpetentzia Pertsonala, Soziala eta Ikasten Ikastekoa (KPSII)
- Konpetentzia Digitala (KD)
- Herritar Konpetentzia (HK)
- Ekimenerako Konpetentzia (EK)
- Kulturaren Kontzientzia eta Adierazpenerako Konpetentzia (KKAK)

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.KONP.ESPE.: Munduaren hizkuntza aniztasuna deskribatu eta estimatzea, abiapuntua izanik ikasleen hizkuntzen aitortpena eta Nafarroaren errealitate eleaniztun eta kultura-aniztunarena, euskararen jatorria eta garapen soziohistorikoa aztertuz, baita euskalki nagusien ezaugarriak ere, helburua izanik hizkuntzari buruzko hausnarketa sustatzea, estereotipo eta aurreiritzi linguistikoei aurre egitea eta aniztasun hori kultura aberastasunaren iturritzat hartzea.

1.1.EBALU.IRIZP.: Nafarroako hizkuntzak eta euskalkiak ezagutzea eta baloratzea, arreta berezia jarritz lurren bereko hizkuntzetan eta euskalkietan, jatorria eta garapen historiko eta soziolinguistikoa azalduz, euskalkien ezaugarri eta alderdi linguistiko eta diskurtsiboak kontrastatuz, eta ezaugarri soziolektaletatik eta erregistrokoetatik bereiziz, ahozko adierazpenetan, idatzizkoetan eta multimodaletan.

2.KONP.ESPE.: Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertu eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informazio aipagarriena bilduz, igorlearen ikuspegia eta asmoa identifikatuz eta fidagarritasuna, forma eta edukia baloratzuz, ezagutza eraikitze, irizpidea eskuratzeko eta aisialdiaren eta gozamenaren aukerak zabaltzeko.

2.1.EBALU.IRIZP.: Esanahi orokorra, egitura eta informaziorik aipagarriena ulertzea, behar komunikatiboen arabera eta igorlearen asmoaren arabera, esparru desberdinetako eta

nolabaiteko zailtasuneko ahozko testuetan eta testu multimodaletan, kode desberdinen arteko interakzioa aztertuz.

3.KONP.ESPE.: Ahozko testuak eta testu multimodalak produzitzea jarratasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz, aintzat hartuta diskurtso-generoen berezko konbentzioak, eta ahozko interakzioetan parte hartzea lankidetzara eta errespetua oinarri dituen jarrera batekin, bai ezagutza eraikitzeke eta lotura pertsonalak ezartzeko, bai modu aktibo eta informatuan parte hartzeko testuinguru sozialetan.

3.1.EBALU.IRIZP.: Nolabaiteko luzera eta zailtasuneko ahozko azalpen eta argudioak ematea, planifikazio-maila desberdina edukita, norberaren, gizartearen, hezkuntzarako eta lanbiderako intereseko gaiei buruz, diskurtso-generoen berezko konbentzioekin bat, jarratasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz, euskarri desberdinetan eta hitzezko eta hitzez kanpoko baliabideak erabiliz eraginkortasunez.

3.2.EBALU.IRIZP.: Modu aktiboan eta egokian parte hartzea ahozko interakzio informaletan, talde-lanean eta elkarriketa eiteko ahozko egoera formaletan, entzute aktiboko jarrerarekin eta elkarriketarako lankidetzako eta jendetasun linguistikoko estrategiekin.

5.KONP.ESPE.: Idatzizko testu eta testu multimodal koherente, kohesionatu, egoki eta zuzenak produzitzea, kontuan izanik hautatutako diskurtso-generoaren berezko konbentzioak, ezagutza eraikitzeke eta modu informatuan, eraginkortasunez eta sormenez erantzuteko eskaera komunikatibo jakin batzuei.

5.1.EBALU.IRIZP.: Nolabaiteko luzerako idatzizko testuen eta testu multimodalen idazketa planifikatzea, kontuan hartuta komunikazio egoera, hartzailea, asmoa eta kanala; zirriborroak idatzi eta berrikustea, berdinen arteko dialogoaren bidez eta kontsultarako tresnen bidez, eta azken testu bat aurkeztea, koherentzia, kohesioa eta erregistro egokia dituen.

5.2.EBALU.IRIZP.: Prozedurak erabiltzea testuak aberasteko, aintzat harturik diskurtsoaren, hizkuntzaren eta estiloaren alderdiak, zehaztasun lexikoarekin eta zuzentasun ortografiko eta gramatikarekin.

9.KONP.ESPE.: Hizkuntzaren egituraren eta haren erabileren gaineko ezagutza mobilizatzea eta gogoeta egitea gero eta autonomia handiagoarekin hautu linguistikoei eta diskurtsiboei buruz terminologia egokia erabiliz, kontzientzia linguistikoa garatzeko, komunikazio errepertorioa handitzeko eta trebetasunak hobetzeko, hala ahozko eta idatzizko produkzioarako, nola ulermen eta interpretazio kritikorako.

9.1.EBALU.IRIZP.: Norberaren testuak gero eta autonomia handiagoarekin berrikustea eta hobetzeko proposamenak egitea, eta, horretarako, aldaketak arrazoitzea gogoeta metalinguistikotik eta interlinguistikotik abiatuta eta metahizkuntza espezifikoarekin.

10.KONP.ESPE.: Norberaren komunikazio praktikak erabiltzea elkarbizitza demokratikoaren alde, gatazkak elkarriketaren bidez konpontzearen alde eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren alde, hizkuntza ez-diskriminatzailea erabiliz eta agintekeriak baztertuz hitzaren bidez, hizkuntzaren erabilera eraginkorra ez ezik, etikoa eta demokratikoa ere sustatzeko.

10.1.EBALU.IRIZP.: Hizkuntzaren erabilera baztertuaileak identifikatu eta alboratzea, baita hitzen bidezko agintekeriak eta hizkuntzaren erabilera manipulatuak ere, hizkuntzan, testuan eta diskurtsoan erabiltzen diren osagaietatik abiatuta, baita komunikazioaren hitzik gabeko osagaietatik ere.

10.2.EBALU.IRIZP.: Estrategiak erabiltzea gatazkak elkarriketaren bidez konpontzeko eta adostasunak bilatzeko, norberaren, hezkuntzaren eta gizartearen esparruetan.

OINARRIZKO JAKINTZAK

A. HIZKUNTZAK ETA HIZTUNAK

A.2. Euskararen garapen soziohistorikoa.

A.4. Gogoeta interlinguistikoa garatzea.

A.5. Aldaera dialektalen berezko ezaugarriak (fonikoak, gramatikalak eta lexikoak) eta soziolekto eta erregistroenak bereiztea.

A.6. Aurreiritzi eta estereotipo lingustikoak aztertzea eta zalantzan jartzea.

B. KOMUNIKAZIOA

B1. TESTUINGURUA

B1.1. Komunikazio egintzaren osagaiak: egoeraren formaltasun-maila eta izaera (publikoa edo pribatua); solaskideen arteko distantzia soziala; komunikazio xedeak eta asmoen interpretazioa; komunikazio kanala eta komunikazioaren hitzik gabeko osagaiak.

B2. DISKURTSO-GENEROAK

B2.1. Oinarrizko testu sekuentziak, arreta berezia jarritz argudio eta azalpenenetan.

B2.2. Testuen ezaugarriak: koherentzia, kohesioa eta egokitasuna.

B2.3. Esparru pertsonalaren berezko diskurtso-generoak: elkarrizketa, arreta berezia jarritz solaskidearen irudia mehatxatzen duten hizketa egintzetan (desadostasuna, kexa, agindua, gaitzespena).

B2.4. Hezkuntza esparruaren berezko diskurtso-generoak.

B3. PROZESUAK

B3.1. Ahozko eta idatzizko interakzio informala eta formala: elkarrizketako lankidetzak eta hizkuntza kortesia. Entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazkak dialogo bidez konpontzea.

B3.2. Ahozkoaren ulermena: testuaren esanahi orokorra eta testuko zatien arteko erlazioa, informazio garrantzitsua hautatu eta gordetzea. Igorlearen asmoa. Hitzeko nahiz hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak detektatzea. Testuaren forma eta edukia baloratzea.

B3.3. Ahozkoaren ekoizpen formala: plangintza eta informaziobilaketa, testualizazioa eta berrikuspena. Audientziara eta azalpenaren denborara egokitzea. Hitzik gabeko osagaiak. Diskurtsoaren eta hizkuntzaren ezaugarriak ahozotasun formalean. Ahozkoaren hausnartze argudiatua.

B3.5. Idatzizko ekoizpena: plangintza, testualizazioa, berrikuspena eta edizio zenbait euskarritan. Idaztea pentsamendua antolatzeke: oharak hartzea, eskemak, kontzeptu mapak, definizioak, laburpenak, etab.

B4. OSAGAI LINGUISTIKOAK EZAGUTZEA ETA DISKURTSOAN ERABILTZEA

B4.1. Subjektibotasuna adieraztea azalpen eta argudio testuetan.

B4.2. Baliabide linguistikoak erregistroa komunikazio egoerara egokitzeko.

B4.4. Kohesio mekanismoak. Lokailu banatzaileak, ordenazkoak, kontrastezkoak, azalpenezkoak, kausazkoak, ondoriozkoak, baldintzazkoak eta hipotesizkoak. Barne erreferentziako mekanismoak, mekanismo gramatikalak eta lexikoak (esanahi abstraktuko hiperonimoak eta nominalizazioak).

B4.5. Aditz formak koherentziaz erabiltzea testuetan. Denborazko korrelazioa perpausak koordinatzean eta mendeko perpausak sortzean, eta kontatutako diskurtsoan.

B4.6. Zuzentasun linguistikoa eta testuen berrikuspen ortografikoa eta gramatikala. Hiztegiak, kontsultarako eskuliburuak eta zuzentzaile ortografikoak erabiltzea, euskarri analogikoan nahiz digitalean.

B4.7. Puntuazioaren oinarritzko zeinuak, testu idatzia antolatzeke mekanismo gisa. Esanahiarekin duten harremana.

D. HIZKUNTZARI BURUZKO HAUSNARKETA

D.1. Ahozko hizkuntzaren eta idatzizkoaren arteko diferentzia nagusiak eta intersektzioak, alderdi sintaktikoak, lexikoak eta pragmatikoak aintzat hartuta.

ZERUERTZ



Jardueraren deskribapena

1. FASEA. SARRERA (IRAKASLEEN ALDETIK)

Migrazioaren gaia aurkeztea, ikasleak motibatzea kultura-aniztasunaren garrantziaz eta honek hizkuntzetan eta literaturan duen eraginaz, hausnartzera.

- Horretarako, irakasleak *DBHko ikasleekin kulturartean hezteko eta sentsibilizatzeko gida didaktikoan* oinarritu ahal izango dira ezagutza transferitzeko. Gida hori Zeruertz-eko taldeak egin zuen, ele bitan (gaztelaniaz eta euskaraz), 2022ko edizioan.

2. FASEA. IKASLEAK ELKARRIZKETARAKO PRESTATZEA

Fase honetan, irakasleek egin beharreko jarduera sartu beharko diete ikasleei; hau da, elkarrizketa bat egin beharko diete migratutako pertsonari. Ikasleek inguruko pertsona migratu bat elkarrizketatu beharko dute, guri dagokigun gaiari buruz, kultura-, hizkuntza- eta literatura-aniztasunari buruz.

Elkarrizketa prestatzeko eta munduko herrialdeetan dagoen kultura-aniztasunari buruzko testuinguru teoriko bat sortzeko, ikasleek hainbat herrialdetako kulturartekotasunari, hizkuntza- eta literatura-aniztasunari buruz ikertu beharko dute, oro har, eta elkarrizketatutako pertsona migratuaren jatorrizko herrialdean, bereziki.

Ekintza horrek aukera emango dio ikasleari irekitasun-posizio batean jartzeko, jakin-min-egoera bat sustatzeko, hurrengo zeregina errazteko, hau da, elkarrizketan adierazitako galderak egiteko.

3. FASEA. ELKARRIZKETA PERSONA MIGRATU BATI

Eskuratutako ezagutzatik abiatuta, ikasleek galdera-gidoi bat prestatu beharko dute elkarrizketa zuzentzeko. Aurkezpenaz, migratzailearen sarrera gisa, eta agurraz gain, elkarrizketatuari egindako ekarpena eskertzeko, elkarrizketaren gorputzean hizkuntza- eta literatura-aniztasunarekin lotutako galderak izango dira.

Ondoren, elkarrizketa hau egiteko laguntza eta adibide gisa, galderen zerrenda bat eskaintzen da [1. eranskinean](#), ikasleek, edozein ikasturtetan daudela ere, beren interesa eta lehentasuna kontuan hartuta, elkarrizketa gidatzeko orientabide bat aukeratu ahal izan dezaten.

4. FASEA. ELKARRIZKETAREN TRANSKRIPZIOA ETA HAUSNARKETA-EZTABAIDA IKASGELAN

Elkarrizketa egin ondoren, hau, euskaraz transkribatuko da, atazari buruzko ebaluazioa ahalbidetzeko.

Era berean, interesgarria izan liteke ikasgelan espazio bat bilatzea, esperientzia horien eta ikasleen arteko elkarrizketen ondoriozko pertzepzioen trukea sustatzeko, euskarazko talde-eztabaida baten bitartez. Espazio honetan kulturartekotasunari eta eleaniztasunari buruz, bai eta horrek gizartean, oro har, eta nortasun pertsonalean, bereziki, duen eraginari buruz ere; era berean, jarduera hori gauzatzeak ikasleengan izan duen eragina landuko da.

ZERUERTZ



Baliabideak eta materialak

BEHARREZKO BALIAKIDEAK

- Interneterako sarbidea eta ikerketa-materiala (irakasleek baloratu beharrekoa).
- Elkarriketak grabatzeko gailu elektronikoa, beharrezkoa bada, elkarriketaren transkripzioa errazteko.

IRAKASLEENTZAKO MATERIAL GEHIGARRIAK

- [Aula Intercultural](#)
- [Ministerio de Educación y Formación Profesional](#)

ZERUERTZ



1. eranskina. Eredugaldere zerrenda

1. Nola eragin du zure migrazio-esperientziak kulturartekotasuna ulertzeko?
2. Zer eta zenbat hizkuntza hitz egiten dituzu eta nolakoa izan da hizkuntza berriak ikasten zenituen bitartean zure ama-hizkuntza zaintzeko esperientzia?
3. Partekatu dezakezu hizkuntza-aniztasunak pertsonalki aberastu zaituen edo erronkak planteatu dizkizun esperientziaren bat?
4. Hizkuntza- eta kultura-aniztasunak eraginik izan al du zure literatura-irakurketetan? Zer moduz?
5. Irakurri al dituzu euskarazko edo gaztelaniazko literatura-lanak?
6. Irakurri al dituzu idazle migratuen literatura-lanak? Nola jo zaituzte?
7. Aztertu al duzu harrera-herrialdeko literaturarik? Zein autore edo liburu gustatu zaizkizu?
8. Parte hartu al duzu zure komunitatean kulturartekotasuna eta hizkuntza- eta literatura-aniztasuna sustatzearekin lotutako topaketetan?
9. Aukerarik aurkitu al duzu zure kultura eta literatura hainbat kultura-jatorritako pertsonekin partekatzeke?
10. Aurkitu al duzu desberdintasunik edo antzekotasunik literatura- edo arte-gaiak zure jatorrizko kulturaren eta harreraren lantzeko moduan?
11. Zer iritzi duzu harrera-komunitatean jatorrizko herrialdeko hizkuntzak eta literaturak mantentzearen eta sustatzearen garrantziaz?
12. Literaturak lagundu al dizu zure jatorrizko kulturarekin konektatzen, kultura berrira egokitzen ari zinen bitartean?
13. Zure ustez, nola funtziona dezake literaturak kulturen arteko zubi gisa?
14. Ba al dago literatura-lan berezirik migrazio-esperientzia zer den hobeto ezagutzen eta ulertzen laguntzen duenik?
15. Zer baloratzen duzu gehiago hizkuntza- eta literatura-aniztasunaz zure eguneroko bizitzan?

ZERUERTZ

